



**HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN  
2022KO AZAROAREN 4KO EBAZPENA, 2023/2024KO IKASTURTEAN  
ORDEZKAPENAK EGITEKO ORDEZKOGAIEN ZERRENDAREN  
MEREZIMENDUAK URTERO BIRBAREMATZEKO PROZESUAN  
ANTZERKIA ETA DANTZA ESPEZIALITATEEN MEREZIMENDU  
ESPEZIFIKOAK BAREMATZEKO OSATUTAKO BAREMATZE  
BATZORDEAN AHOULKULARI ESPEZIALISTAK IZENDATZEN DITUENA.**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan pertsonal irakaslearen aldi baterako premiak betetzeko ordezkogaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen duenak, 20. artikuluan xedatzen duenez, urtero egingo da, ikasturteak bukatu aurretik eta ofizioz, zerrendetan dauden ordezkogaien merezimenduen birbarematze bat, aipatutako aginduan ezarritako irizpideen arabera.

Antzerkia eta Dantza goi mailako arte-irakaskuntzen maila dela-eta merezimenduen baremoari buruzko I. eranskinean xedatutakoaren arabera,- Antzerkia eta Dantza espezialitateen merezimendu espezifikoak barematzeko, kasu bakoitzean landu beharreko arloko aholkulari espezialistak izendatu ahal izango direla esaten da I. eranskin horretan,-

**EBAZTEN DUT**

**Lehena.-** Izendapen hauek egitea:

Antzerkia espezialitateetarako aholkulari espezialista: Mikel Cañada Zorrilla.

Dantza espezialitateetarako aholkulari espezialista: Ainhoa Arenaza Medina

**Bigarrena.-** Gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

**BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 4a